



KULTURGUNEAK EZBAIAN

Sanagustin eta Soreasu noizko eta zertarako? Epeak bezain garrantzitsuak diren edukietaz, herriko eragileekin 20

ASPIRAGAILUAK EZ DUELA ONDO XURGATZEN?

BA HEMEN DUZU BENETAN AUKERA APARTA

Miele ASPIRAGAILUA 2000 W



+

ETA GAINERA OPARI MIELE
ASPIRAGAILU-JOSTAILUA



DENA
199€ TAN



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 118.a (2010eko ekaina)
Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerio
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. G. Otamendi
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritzaren
Gobernua



azpeitia
udala

**Uztarririk
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarrria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkariaren
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2010EKO EKAINEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Udako
udalekuak herrian ala
kanpoan? **13**

mamia

Enekoitz Aizpuru.
Mendi lasterketak ditu
afizio, baina inolaz ez
denborapasa **04**
Klik! Ikasberri
rallysprintean parte
hartu duen bikote baten
jarraipena **16**
Pala hotsik ez. Hamar
urte eta gero Elizkalen
Emakumeen Pala
Txapelketarik ez **24**

jakiteko

Atzera begira. Iturbide
urte askoan ibili da
panderoa jotzen **34**



34



24

Ba al dakizu Lau haurren izenak eman
dituzteLa ja urrestiLako haureskoLan
eta iraiLean irekiko dutela? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrarian




943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarraren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrarian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarririk 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberría, Valentina Agirre (Uztarririk hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

ENEKOITZ AIZPURU

mendi lasterkaria

“Ahal dudan ondoen egitera joaten naiz”

Mendi lasterketak indarra hartzen ari dira eta Azpeitian ere antzematen da hori. Aizpuru da ordeka utzi eta aldapan gora hasi denetako bat. ✉ Mailo Oiarzabal

Gar mendipeko banda “igo eta jaitsi, igo eta jaitsi” ibiltzeari utzi eta atletismoaren harra sartu zitzaion gero. Errepidean ekindako bidea markatu eta, aspalditxoan, mendi lasterketetan ari da parte hartzen. Biak probatu ondoren, mendian korrika egitea “entrenigarriagoa” dela iruditzen zaio. Uztailaren 4an egingo den Xoxoteko ‘Zuzenien’ proba du orain jomugan.

Zelaian nahikoa ez eta orain mendian gora ere korrika. Zer diote ingurukoek?

Familiakoak gehienbat ba, horixe, aldapan gorakoarekin baino gehiago, aldapa behekoarekin kezkatzen dira. ‘Mendian eta, kontuz ibili behar da aldapan be-

hera, belaunekin eta...’, horrelakoak esaten dizkirate. Gainontzean, beti gustatu izan zait lasterka egitea eta neure erara uzten didate. Alde horretatik ez dago arazorik. Emaztea kezkatzen zait tartean behin pixkat, baina bueno... [barre egiten du].

Zenbat mendi lasterketa egin dituzu orain arte?

Hiru-lau bat urte badaramazkit eta, hainbeste ere ez ditut egin, hamabosten bat edo. Bertikalak gutxi, lehengo urtean hasi nintzen egiten eta, aurtengoa egiten badut, lau izango dira. Berriagoak ere badira bertikalak; motzagoak, esplosiboagoak, penditz handiekin. Besteak, ja, 21 kilometro, 25, 42... izaten dituzte. Horietarako gehiago prestatu behar izaten da.

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1974ko abuztuaren 8an.

||| **Heria.** Azpeitia.

||| **Bizi tokia.** Azpeitia.

||| **Lanbidea.** Egur-lanera dedikatzen den enpresa batean egiten du lan.

Ordekan ere asko ibilitakoa zara zu.

Aspaldi honetan gutxiago, aurtien ez ditut asko egin, baina saiatzen naiz tartekatzen. Errepide gainekoetan ibili izan naiz. Maratoia behin nago eginda, orain dela sei urte edo. Gero, maratoi erdiak, hamar bat kilometrokoak, hemen ingurukoak gehienak, eta Behobia... Horrelakoak.

Eta non erosoago, ordekan ala mendian?

Mendikoak politagoak dira niretzako, entrenigarriagoak; pai-

saia, eta... Beno, askotan paisaia-ri begiratzeko betarik ez digu ematen, baina... Errepidean, erritmo konstante bat eraman behar duzu, eta askoz jipoi handiagoa ematen diozu gorputzari.

Futbolaria zinen zu, eta gero pasatu zara atletismora. Nola etorri zen aldaketa?

Futboleko, egia esan, teknika aldetik eta ez nintzen oso ikusgarria; lasterka egiten nuen nik asko, banda igo eta jaitsi, igo eta jaitsi. Futbola laga nuenean, lau urte ezer egin gabe egon nintzen. Eta badakizu, gizonezkoak nolakoak garen, afaltzera joaten garenean eta txispatzen garenean... Lagun bat neukan, lasterka ibiltzen zena, eta apustua jokatu genuen, afari bat: ‘Hi, datorren urte-



Enekoitz Aizpuru Izarraizko maldetan gora, iazko 'Zuzenien' lasterketaren une batean.

an Azpeitiko maratoi erdian hamabost minutu atera baietz! Hortik hasi nintzen. Urte hartan egundoko egurra eman zidan, afaria ordaindu nion eta, afari hartan berriro: 'Hi, datorren urtean baietz...! Eta hurrengo egunetik aurrera lasterka hasi nintzen, eta geratu ere egin gabe. *Forrest Gump* pelikula bada ba? Ba halaxe.

Korrikak kateatu egiten duela egia da, orduan??

Bai. Hasiera batean arazotxoak izaten dituzu: hankako mina dela, bestekoa dela... Baina behin mar txan ondo hasten zarenean, bizioa da. Bueno, bizioa edo... Pare bat egun-edo huts egiten baduzu, zeozer falta duzula sentitzen duzu. Orain ja ez zaigu horrelakorik pasatzen, lehen gehiago. Orain, beste erritmo batzuetan ibiltzen garenez, deskantsatu ere egin, egin behar da. Hiru egun ezer egin gabe egon, eta ez da ezer gertatzen.

Gizon asko aita izandakoan hasten omen dira batik bat kirola egiten. Zure kasua al da hori?

Benoa, ni lehenago hasitakoa naiz, eh, baina... hortxe-hortxe. Baina bai, gehientsuenak, hamarretik zortzitan, horrela izaten dira. Egia da lasaitzeko bide bat badela, pixkat bai. Nik hiru ume dauzkat, eta neure ordubetexoa edo ordu eta erditxoa neure erara ibiltzea gustatzen zait. Pixkat neurekoia izatea ere bada, andreak ez du eta edukitzen horrelakorik, baina... Nik esaten diot tartea hartzeko, baina ez da joaten.

Taldeko kirola eta banakakoa, zu biak probatuta zaude. Zer eman dizu zuri bakoitzak, eta zerek betetzen zaitu gehiago?

Nire futbol garaian gustura ibili nintzen; lagun asko egiten dituzu, eta lagun onak. Korrikan ere gustura nabil, eta hor ere lagunak

egiten dituzu. Baina ezberdinak dira. Hau [atletismoa] bakartia goa da, eta sufrituagoa ere bai, niretzako; zeozer nahi baldin baduzu, egunero joan behar duzu. Baina bietan egin ditut lagun handiak.

Kirolik egin gabe ezin bizi, baina kiroletik ezin bizi?

Ez, horrelako onak ez gara behin ere izan. Futboleko eduki nituen nire aukerak, Real Unioneekin Bigarren B mailan jokatzera iritsi nintzen. Baina hortik gora ja jauzi handia dago, zaila da. Hortik bizitzeko 'superra' izan behar zara, eta guk ez daukagu.

Atletismora itzulita, presta-

ketak ordu asko kentzen al dizkizu?

Prestatzen ari zaren probaren arabera, ba bai, bere orduak kentzen ditu. Maratoi erdi bat prestatzen ari bazara, egunero ordubete, ordu eta erdi behar izaten dira prestaketa ona egiteko. Batzuk gehiago ere behar izaten dute. Ni 'masoka' horietakoa naiz, entrenatu bai baina luzatze-ariketarik eta horrelakorik ez; eta horiek ere berez egin beharrekoak dira, eta horiek egiten hasiz gero, denbora gehiago behar duzu... Mendiko lasterketa hauek oraindik eta denbora gehiago kentzen dizute, prestaketan; mendi maratoi bat prestatzen ari bazara, astearen bukaerarako lau-bost orduko buelta batzuk egin behar izaten dituzu.

Eta zerk motibatzen zaitu, zerk bultzatzen zaitu ahalegin hori egitera?

Gustatu egiten zait, eta gozatu ▶

“Mendiko lasterketek denbora gehiago kentzen dizute”

►egiten dut. Eta, lehen esan dudan bezala, neure gustuko zeozer egiteko denbora edukitzea ere gustatzen zait. Eta gero, hori bai, nonbaitera joan behar baldin badut, ondo prestatuta eta ahal dudan ondoen egitera joatea gustatzen zait. Gero, igoal hogeigarren egingo dut, edo hogeita hamarren, baina neure zera bat emanda, behintzat. Neure burua-ekin konforme geratzea gustatzen zait, eta gehienetan lortzen dut, hamarretik bederatzitan ahal duguna egiten dugulako.

Markak?

Hori ere bai, markak ere hor daude. Ahal badaurreko urtekoa hobetzen ahalegintzen gara.

Mendi lasterketetak prestatzeko, non egiten dituzu entrenamenduak?

Hor gora, Xoxote aldera joanda entrenatzen naiz. Azkenengo urteetan nik eta lagunek Aizkorriko Mendi Maratoian parte hartu izan dugu, eta harako entrenamendurik onena hor gora dago. Hor bezalako entrenamendurik... Aizkorri eta hauetaz aparte, egin dudan probarik gogorrena hemengoa izan da [iazko 'Zuzenien' lasterketa]. Gogorrean ohitu behar da, eta normalean horra joaten gara: Xoxotera, Erlora, Kakutera... in-guru horietara.

Prestaketan alde handia al dago, mendiko lasterketa izan ala errepidekoa izan?

Errepiderako, biziago ibili behar izaten zara. Erritmoak desberdinak izaten dira, lauan ibili edo aldapan gora ibili. Errepidekoak entrenamendu biziagoak eta esplosiboagoak izaten dira. Mendi lasterketetarako, astean bi aldiz gutxienez mendian ibili beharra daukazu, baina ezin zara ezta egunero edo bakarrik mendian ibili; tartekatatu egin behar izaten da, egun bat lauan korrika, eta beste bat mendira, gutxi gora-behera.

Eta lasterketaren ondorengo errekuperaketan alderik ba al dago?

Mendiko lasterketetan, egunean

bertan, muskuluei dagokien zozoratuago bukatzen duzu. Baina 'patata' [bihotza] normalean gutxiago behartzen duzu; batzutan behartzen duzu, baina ez da behan, errepidean bezala. Errepidean eritmo biziagoari eutsi behar izaten diozu, eritmo jakinean eta konstanteagoan joaten zara; maratoi batean, adibidez, kilometroa lau minutuan egiteko prestatu baduzu, hori lortzeko eritmo berari eusten saiatzen zara. Mendian, berriz, aldapan gora makalago zoaz, aldapan behera biziago, ordeka tarteak ere egoten dira... Orduan, 'patata' aldetik ez duzu hainbeste sufritzen. Beheko maratoi batetik errekuperatzea gehiago kostatzen zaizu; bestela, ikusten dituzu profesionalak, urtean maratoi bat, edo asko jota bi egiten dituzte. Mendian ere, neuk, 42 kilometrokoa urtean bakarra egin izan dut, baina besterik egitea ez zaidalako tokatu. Baina beti mendian ibiltzen diren hauek, berriz, astebukaeraro hor ibiltzen dira, eta batzuetan zapatuan 21 eta jaiian beste 22 kilometro egiten dituzte. Ondo errekuperatzen dute, batzuek.

Hori al da normala, zure kasuan ere bai?

Ni ez, ni ez naiz gai ikusten horretarako. Pertsona denak ez gara igoalak. Nik zapatu batean mendian 21 kilometro egiten ditut, denak emanda, eta hurrengo egunean ez naiz gauza berriz ere denak emanda beste lasterketa bat egiteko. Pertsonaren arabera

“bertikaleko hori eta, proba motzak eta politak dira”

“Hemen bixi ibili beharra dago. Aurkari mordo daukat herrian!”

#Gipuzkoa

lan munduratzeara

herrian eta azpiegiturak

enpresei laguntzea

teknologia eta berrikuntza

Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa dela medio.

GIPUZKOA
ZUZENEN, BAITERRA

dago, batzuek aguantatu egiten dute karga hori, eta beste batzuek ez.

Azpeitian korrikarako zale-tasun handia dago aspalditik, eta orain mendi lasterketetak jarri al dira modan? Saikapanetan beti azaltzen da azpeitiarren bat aurre samarrean...

Bai, aurrean ibiltzen garenak mordo gara, azpeitiarrak. Hori da bizikletan Sabinanigo den bezala, egundoko afizioa dago Azpeitian, eta gainera gehienak ni bezalakoak dira, joan eta benga, ahalik eta ondoen egitera joaten direnak. Mendiko lasterketak errepideko-

ak baino entretenigarriagoak dira, eta nik uste dut pixkanaka-pixkanaka jendea animatzen ari dela, emakumeak ere bai. Bertikaleko hori eta, adibidez, motzak eta politak dira. Denek egiteko modukoak dira, gainera; mendian ibiltzea gustatzen zaionak lasai-lasai egin dezake hori.

Aurtengo 'Zuzenien' proba ere ari da gerturatzen. Hasi al zara herriko lasterketa prestatzen?

Egia esango dizut, oraindik ez naiz serio hasi. Baina hasi beharrean nago. Hemen bixi ibili beharra dago, bestela... Aurkari mordo daukat herrian!*

Lehen hautaketa

Ekaina iritsi da eta laister ikusiko ditugu ikasleak berriro ere herriko kaletan hain merezitako oporraldiez gozatzen. Beraientzat bukatu da beste ikasturte bat baina hezkuntza arduradunek atsedean garai hau hezkuntza sistemak beharrezkoak dituen erreformak abian jartzeko aprobetxatu behar lukete.

Krisi garai honek hezkuntza sistemari ere eragin dio. Maiatzeko azken astean hezkuntza publikoko langileek egindako greba deialdia horren adibide garbia da. Erakunde publikoek hezkuntza sistemari ezarri nahi dituzten aurrekontu eta langilego murrizketak izan dira arrazoi nagusiak, Gabilondo ministroak medio eta inbertsio gehiago ezartzeko erforma proposamenarekin guztiz kontrajarririk.

Hezkuntza sistema ez da bigarren mailako kontu bat gizartearen, edo ez luke izan behar behintzat. XVIII. mendean Prusiak (gaur egungo Alemaniako eskualdea) hezkuntza publikoa ezarri zuenetik lehenbiziz, herrialde bateko garapenaren adierazle izan da bertako hezkuntza sistemaren kalitatea.

Espanian 1857ko Moyano Legea izan zen hezkuntza publikoaren abiapuntu, analfabetismoa hain erroturik zegoen gizarte batean berrikuntza handia izanik. Aurrerago, 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorra eta 1990eko LOGSE legeak osatu zuten hezkuntzaren legegintza berria. Baina ez dira legeak bakarrik behar baizik eta borondate kontua da nagusiki. Denok dakigu hezkuntza sistemari ikasle batek duen arrakasta edo porrotak bere etorkizuna baldintzatzen duela, berau baita gizartearen egiten duen lehen hautaketa etorkizuneko hiritarrei buruz.

Horrela, hezkuntza sistemari ikasle batek izandako bilakaerak baldintzatuko du lan munduan pertsona horrek izango dituen aukerak eta azken finean klase gizarte honetan bere kokalekua. Hau horrela izanik, ezinbestekoa da zailtasunak dituzten ikasleei zuzen-



markel mendizabal

||| Ezinbestekoa da zailtasunak dituzten ikasleei zuzenduriko programak mantentzea

duriko programa eta baliabideak mantentzea. Ezin dugu izan hain inozoak ez ikusteko gaur egungo ikasleen etorkizuneko aukeretan daukagun eragina. Gizarte bezala uste dut denon betebeharra dela aukera berdintasuna eta lan irtenbide duhinak bermatzea guztiei.

Merezitako aitortza

Gure baillan hezkuntza eskaintza oso anitza aurkitu dezakegu eta beharrezkoa da etorkizunean ere hau horrela izaten jarraitzeko baliabideak jartzea. Derrigorrezko hezkuntzatik hasita unibertsitate mailako hezkuntza eskaintzara arte aurkitu dezakegu oso erradio txikian eta horri probetxua atera behar diogu.

Kurto amaiera honetan ere hezkuntza sistemari lan egiten duten guztiei nire aitortpena egin nahi nieke eskaintzen duten zerbitzu publikoagatik eta gainera eskaera bat luzatu nahi nieke: ez dezatela ahaztu beraien lanak etorkizuneko hiritarengan duen eragina.★



Oinarrietara so eginez

Urte gutxian asko aldatu da bizimodua. Bizimodua eta bizitza filosofia, nik uste. Gure bizi erritmoa ezin dute ulertu gure aiton-amonek. Haiek gaztetan zuten bizimodua da, berriz, guri buruan sartzen ez zaiguna. Biek ala biek izango dute alde onik, eta, nola ez, baita txarrik ere. Bakoitzari bere-ora ohitzea eta bizitzea besterik ez zaio tokatu, ordea, eta horrekin bizi behar.

Urte gogorrek bizitzea tokatu zitzaizkien gure aurreko belaunaldiak. Eguzkia irteten zenetik sartzen zen arte lanean pasatzen zuten; 5-10 ume izaten zituzten, eta haiek zaintzen igarotzen zuten eguna... sakrifizio asko egiten zuten familia aurrera atera, eta ahalik eta ondoen bizitzeko.

Gure aurrekoak dira gure oinarri. Atzera begiratu behar izaten da, noizean behin, nondik gatozen gogoratu, eta aurrerako bidea zein den jakiteko, aztertzeke. Zerbait eraikitzeke, oinarria izaten da garrantzitsuena, hori ezean, gainean eraikitako guztia kili-kolo izaten baita.

Lanak eman dit gure zutabe diren aurreko belaunaldiak ezagutzeko aukera. Gehienak baserritarrak. Istorio politikak, tristeak, sinestezinak, gogorak... Denetik entzutea tokatu zait. Baina orain dela ez horrenbeste, orain dela 50 bat urte, nola bizi ziren jakin eta ulertzeko balio izan didate istorio horiek. Galde-tuz Erromaraino iritsi omen daiteke. Ni Erromaraino ez, baina etxe askotako sukalde bazterreraino iritsi naiz, kontu polit askoak entzutea.

Milaka istorioko gizona

Bazen Azpeitian milaka istorio zituen gizon bat. Milaka istorio, gure aurreko belaunaldiak ezagutzeko. Milaka istorio kontatzen zituen berak, eta besteen istorioetan ere sarri azaltzen zen. Orain egun gutxi itzali zen Enrike Zurutuza argia.

Udal liburutegian ezagutu nuen, han izaten baitzen goizero ez bazen ia goizero. Lehen



ihintza agirretxe

III Ez dira, bila ibilita ere, dozenan hamahiru tokatzen Enrike Zurutuza bezalakoak

ere bere mila istorio entzunak nituen, eta, egia esan, errespetua ematen zidan. Ez dut gogoan zer, baina eskera joan nintzen haren-gana. Inguratzean, antiojo handien azpitik bere begi urdinak niri begira jarri, eta hurrengo goizean bere etxera joateko esan zidan. Hurrengo goizean han zen etxean, esandako ordurako, nire zain. Mahai handi bat erdian, ordenagailua alde batean, eta txukun-txukun gordetako argazki eta dokumentu mordoak esku artean. Txukun gordeta, bakoitza bere datuekin, izenekin.

Mila istorio izateko moduko lanbidea (eta bokazioa) izan zuen Zurutuza, albertaria izan baitzen urte luzez. Baserriz baserri ia Euskal Herri osoan bueltaka ibilia zen, eta beti izaten zuen zerbait kontatzeko. Lanetik irtendakoen ere, ez zen geldik egotekoa gizona, antzerki zuzendari, idazle, itzultzaile... Denerako izaten zuen beta gizonak.

Hizketan bizia zen, eta istorio bat bukatzerako beste bat izaten zuen buruan. Ez dira, bila ibilita ere, dozenan hamahiru tokatzen Zurutuza bezalakoak. ✘



Xanti.R

EREGI

Euskara Zorbitzua
Itzulpenak, zuzenketak eta euskara planak

Komunikazio Zorbitzua
Diseinua: Logotipoa, papertegia, aldiizkariak, iragarriak...
Komunikazioa: Prentsa bulego lanak, komunikazio kanpainak...

**euskara eta
komunikazioa**



goiko kalea 5, 3A · tel.: 943 08 06 88 · 20730 azpeltia
e-posta: eregi@eregi.net



HIZKUNTZ ESUBIDEAK

**GORA.** Abisuak ere euskaraz.

Enkarguren bat egitera edo kafe bat hartzera atera da denda honetako jabea eta bezeroei fundamentuzko abisua utzi die; euskaraz, noski! 📌 **Uztarría**

**BEHERA.** Euskara krisian.

Hil bukaerara ailegatu ezin direnei lagundu asmoz eskaintza polita jarri dute denda honetan. Euskara, ordea, bazterrean utzi dute, ahaztuta. 📌 **Uztarría***



Laxaro Azkune.

ESANA DAGO

“Bistakoa izan da Herri Irratiaren noranzkoa, eta pena handia da”

“Azken urteetan bide berriak ireki nahi izan ditu, baina etekin ekonomikorik ez dute eman”

LAXARO AZKUNE
kazetaria

“Egun hauetan ohartu naiz Loiolaren ezaugarriak ezabatu dituztela”

“1965ean irratia itxi zigun, oraindik politikatik bizi den fosil batek”

JOXE MARI IRIONDO
kazetaria



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Kirola eta tranpa

Aspaldi honetan konturatu naiz jendeari eguneroko bizitzan moduan, kirolean ere morboa eta eztabaida gehiago gustatzen zaizkiola kasik kirola bera baino. Horren isla da kirol eztabaida asko, kiroleko edozein eratako tranpen inguruan direla. 'Zer hartu ote dik horrek, partidua erosita omen zegok, primatuta omen zetozte, tongo egin omen dik...'. Horregatik, natorkizue artikulu honetan gai hauetaz nire iritzia plazaratzeko asmoz.

Garbi dagoena da, erdarazko esaldiak dioen moduan, *quien hace la ley hace la tranpa*, kirolean ere gertatzen dela, kirola be-

zain zaharra delarik tranpa. Zaharra izateaz gain oso zabala da, tranpa egiteko modu asko baitaude kirol desberdinetan.

Debekatutako substantzien gaia da agian gehien hitz egiten den tranpa. Nire lehengo susmoa da, kirolariak azkar, erraz eta inolako ardurarik gabe akusatzen direla, frogarik izan gabe kasu askotan. Honek morboa sortzen du, baina kirola eta kirolarie izugarrizko mina egiten diete.

Kirol munduko agenteen arteko akusazioak ere badira, bere aurpegia garbitzea baino bestena zikintzeko gogo gehiago somatzen

zaielarik. Debekatutako substantziak hartzea kirol askotan ematen bada ere, normalagoa da alderdi fisikoak garaipenean edo arrakastan eragin zuzenagoa den kirolean gehiago agertzea. Denok baitakigu, kirol desberdinetan alderdi fisikoaren eraginez dela proportzio berekoa.

Amaitzeko, behin entzun eta askotan pentsatzen jarri nauen adibidea kontatuko dizuet: kamioilari batek astean 500 km egin eta 1.500 euro irabazten ditu, bi pastillatxo hartu eta 1.000 km egin eta 3.000 euro irabazteko aukera balu, hartuko litzuzke edo ez? *



aitor zulaika

IKUSTEKOA!



▲ ZEPQA JARRITAKO AUTOEN FESTA.

Herrian kotxea aparkatzeko geroz eta buruhauste gehiago egonagatik, aparkaleku asko dira zepoa jarritako autoek betetzen dituztenak. Pablo VI-n, Zelai Luzen, Olazko Amaren Plazan eta Juan XIII.ean ateratako argazkiak dira goikoak. Ibilgailuak, besteak beste, zirkulazio baimenik edo aseguruak ez duelako ibilgetu dezakete autoa udaltzainek. 📷📷 Ainitze Agirrezabala *

MAIATZEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



donato unanue




Gazte astea

EKIMEN UGARARI. Azpeitian bizi ez garenok, herriko gazte talde bat gazte astea antolatzen ikusteak benetan pozten gaitu. Are eta gehiago pozten du bat astean zehar izan diren ekimenak ikusita gero, hots, zinema, antzerkia, bertsolariak, pentsamendu eztabaidak... Hori dena, ordea, jatekoa ahaztu gabe; izan ere euskaldun batek nola antolatuko ditu kultur ekimenak afari edo bazkari tertuliarik gabe?



Helikopteroa

ERRESKATEA. Azpeitia errepide aldetik oso patal dago. Oraindik ulertu ez dudana da agintarien artean arazo honek lehentasunik ez izatea. Hargatik, argazki hau ikusita bat poztu egiten da. Anbulatoriotik bertan helikopteroak lurreratzeko aukera izateak bat lasaitu egiten du.



Hazpandarren bisita

HARREMANAK SENDOTUZ. Hazparneko udal, kultura, kirola eta hezkuntza arloko hainbat eragile Azpeitira etorri ziren, maiatzaren 15ean. Hala, hainbat hazpandarrek bertako kultur erakundeekin harremanak izatea benetan garrantzitsua da. Izan ere, horrelako harrema-

nek herri bat gogorarazten digute eta herri honek, bere desberdintasunean eta aniztasunean herri bat izaten jarraitzen duela; nahiz eta hori zenbaitek ezin ikusi eta zapuztu nahi izan. Alferrik ordea. (80. hamarkadatik daude bi herriak senidetuta).*

INKESTA

udako udaLekuak
herrian ala
kanpoan?

 Ainitze Agirrezabala

MAIALEN AIZPURU

10 urte



“Galiziara,
Ribadeora noa bi
lagunekin,
astebeterako.

Saskibaloiko udalekuak dira eta egunean lau orduz ariko jara jokatzeko. Maletan ahaztu gabe sartuko dut saskibaloiko trajea. Udaleku irekietan ere parte hartu izan dut”.

JON ALTUNA

9 urte



“Udaleku
irekietan eman
dut izena. Iaz
Ribadeora joan

nintzen, baina aurten ezin dut, Lagun Onak futbol taldean bainabil. Aukeran, nahiago dut kanpora joan”.

JUNE URAIN

10 urte



“Herrian geratuko
naiz eta udaleku
irekietan bi txanda
gingo ditut.

Gehiena egiten ditugun ibilaldiak gustatzen zaizkit eta aukeran nahiago dut uda herrian pasa, etxean lo eginez”.

MAITE ARZALLUS

10 urte



“Arotzanean
pasako ditut
hamar egun.
Lagun bat eta biok

goaz. Iaz Orion izan nintzen, hamar egunerako. Udale irekietan ere eman dut izena bigarren txandarako”.

Loiola Herri Irratia isildua



 higinio oartzabal

Maiatzaren lehen egunetan itxi ziren Loiolako Herri Irratiko ateak, ia 50 urtean euskararen alde emandako ibilbide oparoari amaiera emanaz.

1961eko otsailean Jesulagunek sortua, ibilbide korapilotsuari aurre egin behar izan dio. Lehenik, 1965ean, Fraga Iribarneren aginduz urte luze batez isilik egon ondoren –okerrena da Azpeitian bertan zituela zelatariak Donostiako Información y Turismo deitzen zutenak–, berriz, 1976an Espainiako indar paramilitarrek –Guerrilleros de Cristo Rey– Itsumendiko antena lehertu arazi zuten.

Ekonomia aldetik ere urte gogorak pairatu ondoren, hainbat saiakera eta bide berri abiatu arren, urrats bakoitzean euskara gertatzen zen galtzaile gaztelaniaren aurrean. Azkenik, ‘pixkanaka itzaltzen joan den kandela izan da’.

Noticias taldeko Onda Vasca Irratiak hartu du. Itziar Sagarzazu langile jubilatua iritzi, “ez dut uste esku txarretan geratuko denik”. Xabier Lasak,

berriz, *Berría* egunkarian dio “zenbait kaleratu entzuleoi azken agurra emateko betarik gabe joan zaizkigu, prozesua modu naturalagoan, gizalegez egitea ere ukatu zaiela dirudi”. Eta, Lasak galdetzen du: “Euskara ere kalera?”. Kosta egiten da sinestea euskararen presentzia ez-testimoniala ziurtatzen zuten esatari ia denak –Alberto Gorritiberea, Imanol Ubeda, Mikel Markez, Oier Guillan...– kale gorrian utzi dituztela.

Baina, hedabideen urratsak merkatuaren arauetara jarraitzen diete, eta eskaintzak eskaeraren arabera egokitzen dituzte.

Onartu beharko dugu, tamalez, gu euskaldunok, garai bateko militantzian behera egin dugula, eta gu garesti gaurko egoera honen errudun nagusiak. Guk euskal irratiei, prentsari, telebistei, liburuei eta abarri bizkar ematen diegunak. Ez diezagun bada hedabideei kulpaa osoa bota, hein handi batean gurea ere badenean.*

galdetzen hasita, zenbat aurreztuko du azpeitiko udalak, funtzionarioen soldata jaitsieraren ondorioz?  Uztarria

400 urte

Aurrera doakigu urtea. Gertu dugu uda garaia ere. Aldizkariaren ale hau kaleratzerakoan, inguruko herri eta auzoetan ospatzen diren jaiak ate joka izango dira.

Guzti horien artean, gure arteko saninaziyuek 4. mendeurrena beteko dute. Izan ere, 1609. urtean Loiolako Inazio dohatsu aitortu ondoren, 1610. urtean, herriko agintari eta ordezkariak, San Inazio hil zeneko eguna (uztailaren 31) jai gordetzeko erabakia hartu zuten, bai eta baimena lortu ere, garai hartako Iruñeako Gotzainarengandik. San Inazio herriko zaindari izendatzeko baimena ere jaso zuten.

400 urte hauetan eutsi egin zaio uztailaren azken egunean jai egiteko hartutako erabakiari. Ezagunak izan dira zailtasunak (gerrateak, iskanbilak...) eta zailantzei aurre eginez, garai bakoitzean ezaugarri eta osagarri ezberdinekin ospatu ondoren, indarrean iritsi dira guganaino jai egun hauek.

San Inazioaren oroimenak ere bizirik dirau. Eskaini

izan duen, eskaintzen duen itzalaren, eta eragin duen bizitzaren lekuko ditugu, besteak beste, honako hauek...

San Inazio berarekin edota bere Lagundiarekin zerikusia duten eraikuntza ezberdinak.

Bere izpiritualitatea aintzakotzat hartu zutelako, gure artera inguratu eta gure artean bizileku egin izan duten hainbat eliz-erakunde.


Inazio donearekin zerikusia duten txoko eta bazterrek bisitatzerako, edota bere izpiritu bizitza berri eta sakontzeko asmoz, gureganaino inguratzen zaizkigun lagunak.

Eta, zer esanik ez, Lagundian, jesuiten artean, jarraitu izan dioten azpeitiarrak –240 azpeitiar inguru– horren berri eskaintzen digute.

Hurrengo asteetan gure artean antolatuko diren hainbat erakusketa eta ekitaldiak, gertakizun hauek gogoratu eta gure historiari begira jartzeko aukera eskainiko digute.*



 kepa susperregi



Ondo altzaude maitia?
Esatenizun ba nik,
gure nagusi hori ez tala tontue;
**Egunen baten harrapauko gintula,
kontuz ibiliber gendula...**
Baño, beñe ez tiezu
kasoik iten ta...

Mahatserrria

Laurogei urteko aitona baserri barrura sartu zen, inor agurtu gabe. Zerbait gaizki egin ote genuen eta haserretu egin zitzaigun galdetu genion alabari. Alderantziz, emozioz, negarrari eutsi ezinik, eta inork ez ikusteko sartu omen zen baserriko sukaldera. Santa-eskeko taldekoak harrituta gelditu ginen, eta ozenago kantatzeari ekin genion, aitonak sukaldeko txokotik entzun ahal zezan.

Beste aitona batek, Karmelok, erakutsi zigun santa-eskeko Mahatserrriko doinu berezia. Eta bere baserriaren atarian doinu hori baino ez genuen erabiltzen, eta bere maisu lana aipatu. Begiak bustita urtero musuzapia eskatu behar izaten zuen Karmelok, eta amazteak lehortzen zizkion begiak, alaba

batek goxo-goxo sorbaldatik eusten zuen bi-tartean. Mahatserrria Bilbon dago, Artxanda mendiaren magalean. Eta hango baserrietan aritzen ginen santa-eskean, oraindik euskara galdu ez duten baserrietako atarrietan.

Askotan eztabaidatu behar izan dut Bilbon bizi izan nintzen garaian 24 orduak euskaraz ematen nituela. Lanean euskaltegian, bertso-eskolan jolasten, txikiteoan euskararen aldeko ekintzak prestatzen, etxean irrati eta telebistako informazioa euskaraz jasotzen... Gutxi sinestuko didan arren, posible da Bilbon euskaraz bizitzea. Eta Bilboko baserrietan bertako euskarari eutsi diotela esateko gauza naiz, horrela bizi izan baitut.

Lehenago hilean Karmeloren eskela ikusi



|||||||||joxin iturriotz|||

nuen *Berria*-n. 'Goian bego!', esaten da hala-koetan. Goian ez, gurekin izango da, santa-eskeko ibilbidea egiten dugun bakoitzean, Bilbon euskara oraindik bizi dela sentitzen dugunean, euskal zaletasuna hauspotzen dugunean. Zer esanik ez baserriaren aurrean alabak eta ilobak agurtzen ditugunean.

Azpeitian horrelakoak baloratzen ez ditugunean, orduan eta gehiago maite ditugunok. Azpeitian, hain euskaldunak izanik, erdararen zirina geureganatzen ahalegina egiten dugunean, Bilboko euskaltzaleen eta euskaldun berrien maitasuna sentitzen dut. Apustu egingo nuke azpeitiarren erdiak ez direla porrua eta tipula bereizteko gai. Uste ez, baina gu bai kalekumeak!*

Eman zure negozioaren berri Azpeitiko Gidan!

azpeitiko



HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA



Goiko kalea 5, 3A • 20730 Azpeitia, Gipuzkoa • Tel: 943 080688 • e-posta: eregi@eregi.net

Abiadura zaleak

Azpeitian kotxeekiko dagoen zaletasuna ukaezina da. Ikasberri rallysprintean parte hartu duen bikote baten jarraipena egin du Uztarriak. 📌📍 Ainitze Agirrezabala



▼ GOIZEAN GOIZ.

Goizetik euria mehatxuka ari bazen ere, azkenean zeruak eutsi zuen eta lkasberri XI. Rallysprintak arrakasta izan zuen, maiatzaren 8an. Goizean, 10:00etarako, epaitegiko plazan bildu ziren arratsaldean parte hartu behar zuten gidari guztiak. Urtzi Oteiza eta Gorka Otaegi herritarrak han ziren, Ford Scort RS 2000 autoarekin. Azkenean, 58 parte-hartzaile izan ziren.



▲ KONTROL SAKONA.

Egiaztapen administratiboa –asegurua, IAT– eta teknikoa –arnesak, barrak, su-itzalgailua– gainditu behar izaten dituzte. Oteizak eta Otaegik dena behar bezala zuten.

▼ BAZKARI PASARA.

Bost bat kotxetako pilotu eta kopilotuk elkarrekin bazkaldtu zuten. Inoiz, lasterketa aurretik alkoholemia-kontrola egin izan diete eta, beraz, bazkaritan ura edaten dute.





▲ KARRERA OROKORREKO IRTEERA.

Epaitegi aurretik ateratzean hasten da ordu-kontrola. Oteizak 2008ko Urrakiko igoeran debutatu zuen, aitaren Ford Scortarekin. Otaegi koplituarekin, berriz, iaz, Gabirian. Karreretan ateratzeko pare bat etxeren "laguntza beharrezkoa dela eta gustura estimatuko" luketela ere adierazi du Oteizak.

► SAILKAPENEAN LIDERRAK.

Lehen autoa irteeratik 15:30ean atera zen; Oteizaren-eta kotxea, berriz, 41. lekuan. Ikasberrikoa denboraldi honetako laugarren ralliesprinta dute eta, oraindik, beste lau geratzen zaizkie jokatzeko. Beraien mailan, totalen, 3. sailkatu ziren; Euskal Herriko txapelketan, berriz, bigarren. Oraingo, Euskadiko txapelketan beraien klasean liderrak dira.



▲ LEHOI

Goizean, eur
eraman zuten
hasi aurretik,
gurpilak alda



▲ BRIFING-A.

Epaitegiko plazatik kotxeak banan-banan atera aurretik antolakuntzakoek araudiaren berri ematen dute.





ARRERKO GURPILEKIN.

aren beldurrez, euritako gurpilekin
n autoa egiaztapenera. Lasterketa
ordea, Landetako garajejan
tu eta lehorrekoak jarri zituzten.



▲ KIROL GARESTIA.

Merkeenera jota ere, karreretako guztia prestatzea ez da broma. Kotxeko barrak 600 euro kostatzen dira, eserleku eta segurtasun uhal bakoitza 100, su-itzaigailua 250 euro... Buzoa, suaren kontrako barruko arropa, kaskoa eta hans-a 900 eurotan eskuratu daitezke.



▲ GABIRIAN.

Iaz zortzi rallysprintetan atera
ziren eta zortziak bukatu
zituzten bakarrak izan ziren.
Rallyak korritzeko lekurik
gustukoena Hondarribiako
dute Oteizak eta Otaegik.
Gutxien gustatzen zaiena,
berriaz, Alegigiko Najarri.
Argazkian, Gabiriko
rallysprinta. ✘

Kulturaren hezurdura eta mamia

Sanagustin eta Soreasu noizko eta zertarako?
Epeak bezain garrantzitsuak diren edukiez, herriko
eragileekin hitz egin du Uztarriak. 📝📍 Ainitze Agirrezabala

Azpeitia ezin esan lehenengo puntan dagoenik kultur sormenari eta kultur ekintzen antolakuntzari, difusioari dagokionez. Taldeak badaude, baina sakabana; herrian lokalak ere egon badaude, baina baldintza eskasetan, eta hainbat kultur ekintzatarako ez dute balio –tailerrak, ikastaroak, musika emanaldi txikiak... egiteko—. Eta kultur etxea, erreferentzia eta biltoki ona litzateke taldeentzat, baliabide egokia kultur dinamika sendoa sortzeko". Gogoeta hori jasotzen zuen Uztarria Kultur Koordinakundeak 1999ko martxoaren 20an aurkeztu zuen txostenak. Gipuzkoako Diputazioaren 1984-1987 Kultur Ekipamenduen Programa-ren arabera, Azpeitian Basazabal Jauregian kultur etxea irekiko zen. Diputazioaren proiektua herri guztietan gauzatu zen, eta Azpeitia izan zen, herri txiki-txikiak kontuan hartu gabe, kultur etxerik gabe segitu zuen bakarra.

la azken hogeitun urteetan Azpeitian egon den "plangintza kultural baten herentzia arrastatzen ari gara", adierazi du Aitor Bereziartua *Atxuiya*-k, Triku Festako sustatzaileetakoak. "Garai batean frustrazioa zen, ezer

herriko
kirol
azpiegiturak
izango ditu hizpide
uztarria aldizkariak
uztailako
zenbakian

[kulturgunerik] ez zegoelako; baina, gaur egun heldu ezin daitekeen amua txixarearekin ikusten duzu urrutira eta, ia frustrazio hori antsietate izatera pasa da. Jendea ez da gogoratuko, igoal, baina Erdikalean gaztetxe zaharra egin zenean, probisonala zen; etorkizun motzean Basazabalen kultur etxe bat sortuko zuela agindu baitzuen Udalak. Orduetik gaur arte kultur etxe santu horren zain egon gara jende asko Azpeitian. Noski, orain Udalak esatea Sanagustin irekitzeko Madril-

go sinadura baten zain dagoela... bai, egia da, baina kontua ez da azken sei hilabeteak. Jendeak antsietate fase hori bakarrik ezagutzen du; baina frustrazioa hogeitun urtean eraman dugu. Lotsagarria den egoera honetan zergatik gauden, igoal buruari buelta batzuk eman egin beharko lizkiokete baten batzuk".

Lokal faltan, karpanra

Lehenago, eskolak ziren Urrestillako lokaletan entseatzen dute 1989az geroztik, dozena bat musika taldek eta alde horretatik "ondo moldatzen" direla dio. "Buruko min handiak" eman dizkiena herrian Triku Festa antolatzeko "gune egokirik ez edukitzea" izan da. "Triku Festa sortu zen garaian gaztetxea itxi zen, Orkatzen kontzertuak ematea laga zen... eta herriko taldeek lokalean egindako lana kalera ateratzeko ez zegoen erraztasunik. Lokal falta hori aldarrikatzeko sortu zen Triku festa eta horregatik jartzen genuen karpa Sanagustin aurrean. Gaur, musika jotzera herrira etortzen diren kanpoko taldeen mugimendu hori ez zegoen orduan eta jaialdia sortzearen bigarren arrazoia hori zen, he-

rriko eta kanpoko taldeen artean harremanak sortzea". Iaz, Sanagustin ez zihola aurrera ikusita ez zuten "animorik eta ilusiorik" ezer antolatzeko. "Maiatzean, Udaletik deitu ziguten: diru partida-eta dena emanda zegoela eta antolatzeko, urrirako irekita egongo zela-eta. Bi hilabeteen sekulako sprint-a jo genuen antolatzeko". Orain bi urte bezala, berriz ere ezerezean geratu ziren asmoak. "Horren atzean zegoena zen, beraiek esan ez zigutena, baina ikusten dena, udaletxeko egoerarekin gauza guztiak erortzen ari diren bezala, politikoki ez zela batere interesgarria Triku Festa ere erortzea". Horren aurrean, Azkoitiko Matadeixen egin zuten Triku festa. "Beste aukera zen, jendeari ordaindu, eta Triku Festa konzerturik gabe egitea. Hori oraindik barre-garriagoa izango zen Udalarentzat".

Azpeitiko Metal Boskotea ere Sanagustinen zen egitekoa ekainean Tuba jaialdia eta "etsipenez hartu" dute berria. AMBko Agustín Jimenezek dio, "udaletxe azpia soinu aldetik kontzertuetarako ez da batere erosoa".

Gune garrantzitsuak

Kultur azpiegitura soiletara joanda "aurrera-pausoak eman" direla bistan dela dio Kultur Mahaiko Talde Eragileko kide Enekoitz Esnaolak. "Herriko kultur taldeetatik eskariak eginda egonagatik, orain dela lau urtera arte ez zen ikusten Udaletik kultur etxe bat mar-txan jarriko zenik. Baina, egun batetik bestera bi proiektu hauek sortu ziren". Esnaolaren esanetan, Soreasu "gune garrantzitsua" izango da, antzokia eta herriko kultur talde askok beren txokoa hor izango dutelako. Sanagustin irekitzea ere garrantzitsua da oso kultur espresio txikiarentzat".

Ta.3 zine-klubeko Maite Azpiauren esanetan, "antolatu egin beharko da talde guztion ekitaldien puzzlea kultur-gunean nola osatu. Eta, Soreasu irekitzean, auskalo". Kultur aretoak Alde Zaharrean izatea herriarentzat "onura" izango dela dio. "Hasieran, urtebetetarako-edo Betharramdarretan bota beharko genuela esan ziguten. Urtebete, bi, hiru... eta, oraindik han gaude. Dugun materialarekin ere izaten ditugu gora beherak, baina, beno, nola edo ahala moldatzen gara. Guretzat txarrera herrigunean ez egotea da".

Bertso saio bat egiteko momentu honetan Udalak bi leku dituela dio Erniarraitz Bertsozale Elkarteak Haritz Etxeberria *Ministro*-k: "Betharramistak lokal hotza da, instalazio txarrak ditu eta ez dago leku onean. Izarraitzen soinu aldetik ondo entzuten da, baina kristoren handia da eta ez da batere



Kultur Mahaiko kideak eta hazpandarrak Sanagustin kultur-gunean, maiatzaren 15ean.

goxoa. Eskerrak gaztetxeari, ekitaldi gehienak hor egin baititugu. Ia 500 lagun sartzen dira eta leku goxoa da". Saioak egiteko Sanagustin "ideala" dela adierazi du: "Halere, gaztetxeari orain artean eman diogun erabilera ematen segoki dugu". Lokalei dagokienean ez daudela "kexatzeko" dio: "Jende asko mugitzen duen taldea gara eta beti eman izan digu Udalak lokala". Soreasu "munstro" bat dela eta oraingoz "han zer egin planteatu ere ez" dutela egin dio. "Ikusten diodan abantaila bakarra han lokala dugunean beste kultur taldeekin izango dugun gertutasuna da".

Madrilatik sinadura noiz bidaliko zain dago

Udala, "ekipamendu tekniko" jarri eta, behingoz, Sanagustin irekitzeko: Pasatzen ari dena gehiegi ez dutela "ulertzen" dio Udaleko Kultura eta Euskara zinegotzi Ana Mendizabalek: "Bi egunez behin deitzen du Julianek [Eizmendi] Espainiako Gobernuako Etxebizitza Ministeriora. Diru partidarekin ez zegoela arazorik esan ziguten apirillean, baina harrapatuta gaude". Sanagustin "kultur ekitaldi txikiarentako kategorikoa" dela dio. "Soreasun, berriz, 2011n ganorazko auditorioa izango dugu eta kultur talde denak elkarrekin egon eta Alde Zaharra biziberritzeko gune garrantzitsua izango da".

Irekitakoan, zer?

Sanagustin eta Soreasu kulturguneak irekitzean izan beharreko kudeaketa zehaztea garrantzitsua da oso. Haiek “edukiz jaztea eta bizia ematea ezinbestekoa, gune dinamikoak” izango badira.

Etorkizun oso hurbilean herrian izango diren bi kulturgune nagusien funtzionamendua eta izaera zehaztea garrantzitsua da oso. Horretan bat datoz Uztarriarekin hitz egin duten hainbat kultur taldeetako kideak eta baita Udaleko Euskara eta Kultura zinegotzi Ana Mendizabal ere.

Herriko “kultur taldeen proposamenei esker eta Udalak emandako pausoen ondorioz, herriar kultur azpiegitura handiak eratzea” doazela dio Kultur Mahaiko Talde Eragileko kide Enekoitz Esnaolak. Sanagustin eta Soreasuko kulturguneei “bizia ematen eta horiek edukiz jazten lanak ere izango” direla gaineratu du. “Sanagustinen funtzionamendua oraindik zehazteko egon arren, behin irekitakoan behin-behineko funtzionamendua izan beharko lukela aipatzen ari gara Kultur Mahaian. Lehen hiru hilabetetan zer gabezia dauden, taldeek zer eskaera dituzten eta zer hobetu daiteken ikusi beharko da. Ondoren,

Udalak horren funtzionamenduari buruzko deialdi bat atera beharko luke, elkarteek eta enpresek proposamenak egin ditzaten. Kultur Mahaia esana du proiektu bat aurkezteko asmoa izango lukeela”. Artean Soreasu ireki gabe legokenez, Sanagustinek “zentralitate handia” izango duela eta “taldeentzat ekitaldiak antolatzeko erreferentzia” izango dela dio.

Autofinantzazioa, oreka

Esnaolaren esanetan, kulturgune horien bideragarritasunak Udalarrentzat ezin du “zama ekonomikoa” izan. “Noski, Udalak baliabideak jarri beharko lituzke, baina taldeek ez dute espero behar horren funtzionamendua, mantenua eta kultur programazioa Udalak finantzatzea. Gainera, Soreasuren mantenuak magnitude ekonomiko handia har dezake eta, beraz, Sanagustinen autofinantzazioa lortu beharko litzateke”.

Sanagustin “edozer motatako kultur espresio txikienezako leku

oso egokia” izango dela dio. “Antzerki amateurra edo Bertso Parranda han antolatu daitezke. Baina, Benito Iertxundi Soreasun. Baloratu egin behar”.

Kulturguneari “dinamismoa eta bizitasuna emateko kultur programa aberatsa eta orekatua lortu behar” dela adierazi du Esnaolak. “Bertsoa, musika, erakusketak, mahai-inguruak... disziplina batzuk nahikoa ahul daude eta horiek indartu, betiere taldeen artean koordinatuz. Egunen aldetik ere oreka gordetzea: iraunkorki irekita egotea eta, hilabete batzuk ez izatea oso lehorrak eta besteak oso beteak. Espazio aldetik, Sanagustinez gain, herriko beste guneetan ere ekitaldiak antolatzea. Baita gure kultur hedabidea edukitzea ere; *Lapikue.net* hobetu eta zuzenekoarekin hasia. Kultur Mahaia egiten ari den lana bisualizatzeko guzti hori garrantzitsua izango da”. Soreasu irekitzean, haren kudeaketan zer egin ikusiko dela dio Esnaolak.

Kultur Mahaiko partaide diren aldetik hango ikuspuntua babes-ten dutela dio Aitor Bereziartua *Atxuiya* Triku Festako sustatzaile-etaoak. “Horien kudeaketan herriko taldeek muturra sartu beharko lukete; ardura eta eskubide batzuk eman beharko zaizkie”.

Formula jakinik ez

Mendizabalek adierazi duenez, bi eraikin horiei “Edukia eman behar zaiela jakinekoea da; baina kudeatzeko zer formula erabili beharrak erakutsiko digu”. Sanagustin irekitzean, lan poltsa bat sortu eta tekniko bat kontratatzea aurreikusten dute, hasteko. “Ezin dena da kulturgunea edukiz %100ean Udalak betetzea. Eskaintza publikoaz gain, elkarte, talde edo tabernariak azaldu beharko lukete. Udaletik koordinazioa eman eta kultur programazio orekatua osatuko litzateke”. Orain eskaintzen diren ekitaldi gehienak doan badira ere, ez dute bazterten “sarrera bat jartzea edo ekitaldiak antolatzeko kulturgunea erabiltzearen alokairua kobratzea”.

Ta3. Azpeitiko zine-klubeko Maite Azpiazuk argi du herriko taldeentzat “plaza bikainak” izango direla eta “gune parte hartzaileak eta biziak izateko programaketa landua eta orekatua” behar dutela. Taldeek “betiko moldeetatik irten eta gauza berriak probatu” behar dituztela” ere aipatu du.✘

Koh Tao
OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOHKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta dizainu ikastegia

dpo

- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

1984-1987.

Gipuzkoako Diputazioaren proiektua. Basazabalen kultur etxea irekiko zen. Urte haietan 76 milioi pezeta xahutu ziren, baina ez bezainbeste eta ez zen ireki.

1998 (MARTXOA).

Uztarria Kultur Koordinakundearen sorrera. Kultur azpiegiturak ardatz.

1998 (ABENDUA).

San Agustinen obrak haste-ko erabakia Udalak. Horretaz eta Basazabalez kultur taldeekin hitz egiteko konpromisoa hartu zuen. 2000ko udal aurrekontuetan Basazabalen (30 milioi pezeta) eta San Agustinen (60 milioi pezeta; 2001ean zortzi milioi) inbertitzeko asmoa agertu zuen.

1999 (MARTXOA).

Uztarriaren txostena kultur etxeaz. "Beharra" azpimarratu, eta proposamen zehatza egin zen: Basazabalen kultur etxea irekitzea Diputazioaren 1984-1987ko programa jasoz. 2000ko martxoan, IKEI-k kultur azpiegituren azterketa egin zuen eta "Azpeitiko mugimendu kulturalaren eskari nagusia" kultur etxea zela ondorioztatu. 2003ko azaroan, Uztarriak kultur gune propioa zabaltzeko asmoa agertu zuen.

1999

25 milioi pezeta udal aurrekontuetan Basazabalerako. Udalaren konpromisoa: Basazabalen obrak egin eta kulturarako erabiltzea, eta haren erabilpena eta izaeraz taldeekin hitz egitea.

2001

Udalak Soreasu erosi. "Goitik behera eraberritu" asmoz. Udalak zioen proiektua egina zuela. 70 milioi pezeta bideratu hartarako.

2004

Udala Soreasuko proiektuaren asmoen berri emanez. "Kultura, gazte eta antzoki gune" egin nahi zuen. 4.800.000 euroko aurrekontua zuen proiektuak.

Azpiegituren kronologia

Mende laurdena da Basazabalen kultur etxea irekitzea agindu zuela Udalak.

Makina bat euri bota du, harrezkero. Laster, bi kulturgune nagusi izango dira herrian.



Soreasu kulturguneko obrak.

2005eko martxoan Soreasurako 1,4 milioi euroko laguntza eman zuen Jaurilaritzak. Maiatzean, Soreasuko kultur guneko zortzi proiektuen erakusketa ipini zuen Udalak eta Tarteka egitasmoa hautatu. 232.758 euro (gehi %16 BEZ) ordaindu zieten egileei. Abenduan, 1.750.000 euro eman zituen Foru Aldundiak.

2005 (IRAILA)

Uztarriaren emendakina. Albo batera utzi zuen kultur gune propioa sortzeko zuen proiektua. Emendakin bat egin zuten, osatzearren: "Taberna kokatzen den eraikinean, aurreneko bi solairuen ia zati osoa Kafe Antzokia egiteko gordetzea". Funtzionamenduaz ere egin zuen proposa-

mena. Urrian, Uztarria eta Udala Elgeta eta Durangon izan ziren Kafe Antzokiak ikusten.

2006 (OTSAILA)

Udalak Soreasu aurkeztu, Kafe Antzokia baztertuta. Maiatzean, obrak hasi ziren.

2006 (OTSAILA)

Kultur Mahaia osatzeko lehen bilera. 2008 hasieran, San Agustini heltzea erabaki zuten, lehentasuna emanda eta haien eskariz egokitzapenak egin zituzten San Agustinen.

2006 (URRIA)

Udala-Espainiako Gobernuaren protokoloa San Agustinez. Gobernuak jarritako baldintza

obrak egiteko: San Agustin antzerkirako eta kultur erabilerarako izatea. Bigarren faserako 1.836.891,60 euro eman zituen Gobernuak. Herritar batzuek San Agustinekiko interesa agertu zuten. Hala, proiektuaren alderdi batzuk zaharkituak gelditu zirela eta aurre-informe bana egiteko eskatu zien Udalak. Bigarren faseko lanen lehiaketako irabazlea Altuna y Uria S.L., y Goitu Eraikuntzak izan zen. Aurrekontua: 1.836.891,60 euro. 2007ko maiatzean hasi ziren obrak, barrialdea egokitzeko. Herritarren informeei erantzuna emanez, Udalak San Agustinekiko proiektua eguneratzeko aldaketa batzuk onartu zituen, urrian. 2008ko urrian, Udalak 300.000 euro bideratu zituen San Agustinen ekipamendurako; baina 2009ko urtarrilean, 300.000 euroak bere egiteko eskatu zion Espainiako Gobernuari eta, honek onartu zuen Udalaren eskaera. Ekainean, Udalak 50.000 euro bideratu zituen udal aurrekontuetan ekipamendua bukatzeko.

2007 (MARTXOA)

Basazabalen hotela egiteko proiektua. Udalak Jaurilaritzari erosi zion, 229.000 eurotan.

2007 (MAIATZA)

Soreasuko lanak Antzibarri. 5.003.080 euro lehen faserako; kanpoaldea bakarrik egingo zen. Soreasuko auditorioko lanak 2011ko udaberrian bukatuko dituztela "aurreikusitako" zuen Julian Eizmendik, iazko urrian. Abenduan Udalak eta Esko Jaurilaritzak sinatutako akordioaren arabera, Foru Aldundiak hiru urtean milioi bat euroekin lagunduko du Soreasuko proiektua.

2010 (MARTXOA)

Kultur Mahaiaren kezka, San Agustinen irekiera atzerapenaz. Gaia desblokeatzeko saioak egin asmoz, Espainiako Kongresuko gipuzkoar diputatuei gutuna bidali zien, maiatzean.★

Pala hotsik ez

Auzotar gutxi batzuk auzo guztiarentzat antolaturiko huts egin ezinezko zita dira Eliz Kaleko Korputz Jaiak. Xumeak baina gozagarriak. 📝👁️ Nekane zinkunegi

Hogeita hamargarrenez ospatuko dituzte Elizkaleko korputzak, ekainaren 5etik 12ra. Egitarauan hamar urtez ospe ederra izan duen ekimena da Emakumezkoen Pala Txapelketa; aurten, ordea, ez egitea erabaki dute antolatzaileek, jende falta dela eta. Jaien eta, batez ere, pala txapelketaren inguruan hitz egin du Uztarriak Amaia Garmendia jai-batzordeko kidearekin eta azken zazpi urteetan pala txapelketan parte hartu izan duen Miren Arrutirekin.

Garmendiaren esanetan, “27 urte inguru nituela heldu genion auzoko lagun batzuek Korputz Jaiak berreskuratzeko ideiarri”. Etxean ikusi zituen bere ama Elizkalean dantzan agertzen zen argazki batzuk. “Garai hartan ziurrenik Korputz Eguna soilik ospatuko zuten”. Baina, jaiak eten luzea izan zutela esan daiteke. “Nik 27 urte nituela ez nuen jaien oroitzapenik”, kontatzen du.

Hala, kaleko giroa berreskuratu asmoz, auzotar batzuk bildu eta jai-batzordea osatu

zuten. “Garai haietan kontu berria zen eta jende dezente mugitu zen hastapenetan”, dio Garmendiak. Urteak igaro ahala, ordea, auzotik kanpora joan omen da hainbat jende eta, azken urteotan, 3-4 laguneko taldetxo baten esku dago festen antolaketa.

Urteroko gisan joango dira jaiak, hutsik egiten ez duten haurrentzako buruhandiekin, hogeita hirugarren aldiz ospatuko den Erretz Txapelketarekin, auzoko hildakoen aldeko mezarekin, iaz lehen aldiz antolatu zen gitarra



Emakumezkoen Pala Txapelketa Frontoi Txikin jokatu izan dute hamar urtez.



|||“Gizonezkoek euren esku-pilota txapelketak izaten dituzte. Guk neskei aukera eman nahi izan genien”

AMAIA GARMENDIA

Jai-batzordeko kidea

poteoarekin... Ekimen horiekin batera, Emakumezkoen Pala Txapelketa egin izan da azken hamar urteotan.

Herriko emakumezkoek jaietan kirol erakustaldiak egiteko aukera izatea zen hasierako asmoa. “Gizonezkoek izaten dituzte euren esku-pilota txapelketak; guk neskei aukera eman nahi izan genien. Hala, Alaitz Badiola kirolari eta kirolzale amorratuak lagunduta, giro jatorreko leiha hori antolatzen hasi ginen. Arrakasta handia izan zuen hasierako garaietan”, dio Elizkalekoak. “Astebetean jokatzeko ziren kanporaketak, final erdia eta finala”.

Berrito antolatzeako pozak

Aurten, ordea, ez antolatzea erabaki dute: “Egitaraua osatzeko bildu ginenean, azken urteotan kopuru duina lortzeko jendearen atzetik ibili behar izaten genuenez, bertan behera uztea erabaki genuen”. Garmendiak ez du oso argi zerk eragin dion jendeari atzera egitea. Bestalde, argi utzi nahi izan du “pena handia” ematen diola besterik gabe mozteak eta aurrerantzean jendeak prestutasuna eta gogoazalduko balu, “oso pozik” antolatuko luketela berrito ere.

Azken hamar urteotan hutsik egin gabe antolatu izan da Emakumezkoen Pala Txapelketa eta azken zazpi alditan parte hartu du bertan Miren Arrutik. “13-14 urte inguru nituela eman nuen izena lehengusinarekin”. Hasieran, bikoteka ematen zen izena. Federatuta eta zeuden jendeak ere parte hartzen zuen eta ezberdintasun handiak zeuden. Hargatik “banaka izena eman eta bikote parekatuagoak egiten ziren azken urteetan”.

Arruti parte hartzen hasi zenetik gaurdaino alde handia nabaritzen duela dio: “lehen inizatiba handiagoa zuen jendeak eta neska gehiago animatzen zen”. Azken urteetan, ordea, lehen parte hartzen zuten nesketako asko ama direlako edo jendea gehiago lotsatzen delako, “behera egin du parte hartzeko prest agertzen ginenon kopuruak”.

Txapelketako oroitzapen “ezin hobekak” ditu: “ederki pasatzen nuen, horren gertukoak ez nituen gainerako neskekin harremana izateko balio izan dit”. Lehen aldietan, aurrez inongo prestaketarik ez zuela egiten dio. “Kanporaketara joan, eskuei astindu ederra eman eta zortea izanez gero aurrera egiten genuen”. Azken urtean, ordea, beste parte hartzaile batzuekin aurrez entrenatzeko ohitura hartu eta “alde handia” nabaritu zuen. “Onena aurreko egunetako saioetan sortzen zen giroa” dela aipatzen du. Urteren batean baino gehiagotan irabazi zuen txapelketa.

Federaziotik etorritakoak izanda ere, parte hartzaile guztiak azpeitiarrak ziren. “Noiz edo noiz Aizarnazabaldik edo Azkoitiatik” etorri zirela gaineratu du Arrutik. “Erabat anitza” izaten zen txapelketa. “Adin eta ezaugarri dene-tako jendeak hartzen zuen parte eta bikote bereziak sortzen ziren. Pozgarria izan zen orain bizpahiru urte 15-16 urteko bi neska euren kabuz txapelketan parte hartzera animatu izana”.

Berrito antolatzeako pozak

Bitxikeriei dagokienez, “nahigabeko istripu” baten inguruan hitz egin du Arrutik: “behin, partida bat jokoan zegoela, ikusle bat leku desegokian zegoen eta, zabal aldera zihoan pilota jotzera joan zen jokalaria, palarekin jo



|||“Nik neure inguruko neskei-eta behin baino gehiagotan esan nien animatzeko”

MIREN ARRUTI

Zazpi urtez hartu du parte

eta bekaina-edo ireki zion. Halako hainbat gorabehera izango ziren hamar urtean.

Azken urteetan izandako beheradaz jakitun da Arruti ere: “nik neure inguruko neskei eta behin baino gehiagotan esan nien animatzeko. Galtzeko aukera beti hor dago, baina irabaziz gero, sari ederrak eskura daitezke”.

Behin eta berriz dio “sortzen den giro ona”. Emakumezkoek aukera gutxi izaten dituztela kontuan izanda, “norberak bere buruari ezarritako horma” gainditu beharra dagoela dio Arrutik eta berrito antolatzea helduz gero, “parte hartzaileon arteko afaritzo bat” ez litzatekeela gaizki egongo gaineratu du.

Txapelketaren dinamika eten beharra “triste” dela diote biek. Arrutiren esanetan, “jendea mugitzen hasiko balitz eta lanerako inizatiba apur bat jarriko balu, kontu ikusgarriagoak egin daitezke”. Berak ere, ez du “gehiegi” parte hartzen antolakuntza lanetan: “ama ibiltzen da Amaiarekin [Garmendia] batera eta nik kontu informatiboak egiten-eta laguntzen diet soilik”. Ea bada jende berria animatzen zaien eta berrito ere Eliz Kaleko Korputz Jaietan Emakumezkoen Pala Txapelketako finalak ikusiz goza daitekeen Frontoi Txikin.✱

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-bohea - Telf/Fax: 943 15 06 97

lentzeria
mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

Azpeititik kanpora bizi bazara ere
jaso zure etxean herriko berri hilerro-hilerro



uztarria
uztarria@uztarria.com
943 15 03 58

||||||| jaione unanue |||



||| leire goenaga |||

Mantangorri, zer berri?

Lire Goenaga. Joan beharko dinagu Sanjuandegira asteburuan? **Jaione Unanue.** Amona mantangorri horren jaitisiera hori ikusteko desiatzen nagon.

Leire. Zer dela-eta aukeratu dituen halako animalia bat?

Jaione. Eguraldiagatik uste dinat. Hala ere, oraintxe 20 urte beteko dituen Sanjuandegiko Aitonena, orain Baigera, inauguratu hunala. Horrekin zerikusia ere eduki zitekenan.

Leire. Eguraldi ona ziurtatzeko izango dun.

Jaione. Kondairak esaten omen din eguraldia ere alda dezakela. Ekaitzak urruntzeko sistema badun, makina batek nahiko zitenan.

Leire. Argi, amona mantangorri bat zapalduz gero, euria egiten omen din. Beraz, begiratu ondo hanka nun jartzen dunan.

Jaione. Eguraldi ona ez badun ere, giroa ziur ikaragarri ona izango dunala.

Jende guztia mugi

Leire. Beste animaliren bat ere Azpeitira etorriko omen dun laister.

Jaione. Zer ari haiz, primateen familiako animalia horri buruz?

Leire. Bai, Macaco Garmendipera etortzeko omen dun uztailean.

Jaione. Lagun Onakoek ere dirua behar omen dituen. Kriaren eraginez, erakundeek ez dituen nonbait nahikoa diru.

Leire. Animalia honek orduan euria ekarri beharko din. Hori bai, diru forman.

Jaione. Azkenean, beti berdin. Krisia sortu dutenak primeran bizitzen eta beste guztiok ondorioak pairatzen.

Leire. BEZa, lan baldintzak, soldata eta diru laguntzen murrizketak. Beti berdinei eragiten.

Jaione. Irabazi handiak izan ziren garaietan

||| **LEIRE.** “Lan baldintzak, BEZa, soldata murrizketak... Beti berdinei eragiten”

||| **JAIONE.** “Irabazi handiak izan ziren garaietan ez hintunan asko gogoratu”

ez hintunan herritar eta langileekin asko gogoratu. Zergatik ez zioten ba orain dirudun hauei kentzen? Ez ditun ba langileak baino gehiago ditunalako.

Leire. Beste animaliren bat ere Azpeitira etorriko omen dun laister.

Jaione. Kriaren ondorioak sufritzen ari garenok mugitu beharra dinagu, eredu kapitalista honek hondoa jo din eta beste eredu bat behar dinagu. Nahi duten guztia egiten jarraituko dituen, bestela.

Leire. Hala dun. Macacoren *Moving* kantuak dioen bezala: “Una gota junto a otra hace oleajes, luego mares... océanos. Nunca una ley fue tan simple y clara: acción, reacción, repercusión”.✘



Erremonteko finala

Hil honen 11n jokatuko da Azpeitiko XI. Erremonteko finala. Jaialdia osatzeko estelarra ere antolatu dute. Hamasei pilotarik hartu dute parte txapelketan eta zazpi azpeitiarrak dira.  Ainitze Agirrezabala

Maiatzaren 21ean eta 28an kanporaketak eta hil honen 4ean finalurrekoak jokatu ostean, ekainaren 11n izango da Azpeitiko XI. Erremonteko finala. Jaialdia osatzeko estelarra ere programatu dute.

Duela hilabete batzuk, erremontearen etorkizuna kolokan zegoela jakitera eman bazuten ere, pilotari profesionalen, zaleen eta erremonte eskoletako ikasle-zen zorionerako urteetan erremontearen babesleku nagusia izan den Hernaniko Galarretak ez ditu, azkenean, atek itxiko.

Txapelketan zortzi bikotek hartu dute parte eta hamasei erremontistetatik zazpi Azpeitikoak dira: Igor Agirrezabala, Xuban Oiarzabal *Matxin III.*-a, Eñaut Oiarzabal *Matxin VI.*-a, Urko Etxeberria, Ion Etxeberria, Aritz Etxe-

||| DATUAK |||||

||| **Zer.** Erremonteko finala.
||| **Eguna.** Ekainak 11 (ostirala). ||| **Ordua.** 18:30.
||| **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.
||| **Antolatzailea.** Oriamendi erremonteko enpresa eta Azpeitiko Udaleko Kirol Saila.

berria *Etxeberria IV.*-a eta Imanol Badiola.

Beteranoak eta hasiberriak elkarren kontra neurtu dituzte indarrak. Aurreneko aldiz hartuko dute parte txapelketa batean Oñatz, Zubiri, Barrenetxea IV.-a eta Urrutia erremontistek.

Sariei dagokienez, bikote txapelkunak 600 euro eta txapelak jasoko ditu; txapeldunordeek, berriz, 300 euro.*

||| ERREMONTE TXAPELKETA |||||

16 pilotari. Zortzi bikotek hartu dute parte eta hamasei pilotarietatik zazpi Azpeitikoak dira.

10 euro. Kostako da finaleko sarrera. Kanporaketetako sarrerak, berriz, doan izan dira eta finalerdietakoa bost euro.*



Txapelketa jokatu duten pilotariak eta antolatzaileak, Izarraitzen egin zuten aurkezpenean. ||| Ainitze Agirrezabala

||| BESTERIK |||||

1 Legen Beltza taldea zuzenean Diska berriaren aurkezpen kontzertua emango du Legen Beltza taldeak. Azpeitiar taldearen emanaldiaren ondoren, Frantziako Hacride musika taldea izango da eskenatokian.

||| **Eguna.** Ekainak 19 (larunbata). ||| **Ordua.** 22:30
||| **Tokia.** Udaletxeko arkupeak.
||| **Antolatzailea.** Azpeitiko udala.

2 Sanjuan sua eta erromeria

Azpeitiko baserri eta hainbat auzotan udako solstizioa ospatzeko suak piztuko dira. Batik bat, herriko neska-mutikoez egingo dituzte suak, baina urteetako usadioari eutsiz, plazan ere sua egin eta erromeria izango da haren bueltan.

||| **Eguna.** Ekainak 23 (asteazkena). ||| **Ordua.** 21:30
||| **Tokia.** Plaza.
||| **Antolatzailea.** Azpeitiko udala.

3 Arte eta diseinuko lanak

Arte eta diseinu eskolako ikasleek urtean zehar egindako lanak ikusgai izango dira.

||| **Eguna.** Ekainak 28tik uztailaren 11ra (astelehena).
||| **Ordua.** Astegunean 18:00etatik 20:00etara. Asteburuan, 12:00etatik 14:00etara. ||| **Tokia.** Betharram aretoa.*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

Sariak bazkideentzat

Bazkideen artean hainbat sari zozkatzeko lehiaketa jarri du martxan Uztarriak. 'Azpeitiko kontuak eta komeriak' ipuin bildumaren bi ale banatu ditu, dagoeneko. 📧 Ainitze Agirrezabala

Bazkideen artean hainbat sari banatu asmoz, lehiaketa jarri du abian Uztarria Komunikazio Taldeak, webgunen.

Zozketetan parte hartzeko Uztarriak proposatutako galderari erantzun beharko zaio eta horrekin batera bazkide datuak bidali uztarria@uztarria.com helbidera.

Lehendabiziko lehiaketan *Azpeitiko kontuak eta komeriak* ipuin bildumaren bi ale zozkatu ditu bere bazkideen artean.

Gisa honetako lehiaketa gehiago egingo ditu datozen hilabeteetan. Zozketa horietan parte hartu nahi duenak Uztarriako bazkide izan behar du; beraz, bizkor ibili eta zu ere animatu!*

|||Zozketetan parte hartu nahi duenak Uztarriako bazkide izan behar du

|||INKESTA|||

Uda datorrela eta, elikadura zaintzen hasi?

Bai. %35,34.

Ez. %33,62.

Ez, baina hasiko naiz. %5,17.

Ez, eta ez naiz hasiko. %25,86

|||**Oraingo galdera.** Krisia noiz bukatuko dela uste duzue?



'Azpeitiko kontuak eta komeriak'.

|||EFEMERIDEAK|||

1499

Juan Antxieta. Musikariari eman zioten Salamancako (Espainia) apezpikuan Villarinoko (Espainia) prestatzaile titulua.

1710

San Inazio Egun bezperan. Barau egiteko dekretua irakurri zuten Zumaian egindako Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gehiengoak zin egin zuen.

1755

Pattarra eta mistolaren salmenta kontrolatua. Zergen bidez lortutako dirua kontrolatzeko, pattarra eta mistola bi tokitan bakarrik saltzea erabaki zuten. Urrestillan beste toki batean ere saldu ahalko zen.

📧 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar* liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



||| **SOLUZIOAK** |||

HITZ GEZIDUNAK

O	K	Δ	B	Δ	●	U	N	I	E	K	●
I	Δ	●	Δ	E	K	R	E	M	●	Δ	S
L	E	I	●	K	Δ	Z	●	O	I	●	●
O	R	N	Δ	●	U	Z	Δ	R	Δ	R	Δ
●	U	R	Δ	I	P	Δ	●	Δ	R	E	●
U	R	U	P	Δ	I	Z	Δ	●	Δ	N	Δ
T	Δ	R	●	Δ	I	Δ	Z	E	●	T	●
R	E	H	E	●	T	I	●	●	●	●	●
U	Δ	S	I	T	R	E	R	Δ	H	Δ	●
●	Δ	●	Δ	●	S	●	●	Δ	●	Δ	●

HITZ GURUTZATUAK

Δ	I	M	O	N	O	T	U	Δ	Δ	Δ	Δ
R	●	Δ	N	Δ	K	I	K	I	U	Δ	Δ
K	Δ	N	I	R	O	●	I	Δ	Δ	Δ	Δ
I	Δ	L	I	G	I	●	Δ	I	Δ	Δ	Δ
N	E	D	E	●	Δ	N	Δ	K	L	Δ	Δ
O	Δ	R	●	Δ	O	Δ	Δ	Z	Δ	M	Δ
N	R	●	Δ	O	Δ	K	Δ	Δ	B	Δ	Δ
Δ	Δ	Δ	U	Z	I	Z	●	Δ	I	N	Δ
Δ	K	E	T	Δ	K	E	T	Δ	K	E	T

||| **ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?** |||



||| **ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA.** Ekainak 21 (astelehena) ||| **NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| **IRABAZLEARI SARIA.** Larchago upategiko ardoak ||| **PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| **ZER DAGO SOBERAN/////ZER DAGO FALTAN.**

||| **ZURE IZEN-ABIZENAK**

||| **TELEFONO ZENBAKIA**

||| **UZTARRIAREN MAIATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA** |||

ZEIN DA?



BEÑAT LIZASO BERTSOLARIA



IRABAZLEA



Jokin Aiertza Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 117. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Jokin Aiertza, saria eskuetan duela.

**ETXEZ ETXEKO
ARDO BANAKETA**

943 76 98 51 Larchago



Larchago krintza 2006
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Krintza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Pasta

Egunero, gure gorputzak kontsumitzen duen energiaren %35 karbono hidratoetatik edo azukretik dator; horiek, berriz, zekaleetatik –garia, arroza, artoa– lortzen ditugu.

Mendebaldeko zibilizazioa, gehien bat, gariarekin egiten dugun ogiarena edo pastarena da. Ia desberdintasunik ez dago bien artean: ogiak ur gehiago du. Esaten dutenez, gure inguruan pastaren kontsumoa defizitariora da. Egia da, baina, behar bada, senak aginduta ogi gehiago kontsumituz orekatzten dugu.

Genovan, ostatu bateko jantokian, makarroz betetako plater baten aurrean lehen aldiz eseri nintzeanean, gertuen zegoen beste mahaikide bati begiratu nion, pasta pila hura nola jan behar zen ikusteko.

Nahiz eta neu ez izan oso zalea, aitortu behar dut onuragarria dela. Pasta elikagai sanoa da, erraz eta era askotara prestatzen da: bakarrik edo haragiarekin, arrainarekin eta barazkiekin.

100 gramo pastak 100 gramo ogik adina energia du, 350 kaloria ditu, oiloen hiru arrautzek adina. Patata frijituen ordeztu jan daiteke eta erraz liseritzen da. Kolesterola eta azido urikoa murrizten laguntzen du.

Iraupen luzeko kirol ariketak egiten dituztenentzat gomendagarria da eta hori ondo dakite txirridulariek.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

SONIA ARRIOLA optikaria



1. Zer dago modan?

'Retro'-a dator: II. mundu gerrako *Aviator*-ak, kasu.

2. Betaurrekoak jarri beharra trauma al da?

Geroz eta gutxiago.

Gurasoei ematen die pena umeari jartzean.

3. Tranparik bai?

Hiru bat ume etortzen dira urtero, gaizki ikusten dutela eta. Simulagailuak, ordea, segituan harrapatzen ditu.

4. Betaurrekoak ala lentillak?

Betaurrekoak lehen urratsa dira. Lentillekin, ordea, ikuseremu osoa lortzen da.

5. Bitxikeriarik?

Makinan kokotsa jartzeko esan eta kopeta jarri.

6. Zerk du arrakasta?

Miopia gutxitu eta kentzeko gabez jartzen diren lenteak.

7. Salmentarik onena?

Udaberri-udan.*

 **Ainitze Agirrezabala**

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak:
943 15 16 40

ostadar optika
OPTOKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Anetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

uztarria

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea
20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

domusa

Antonio Rafaniello HORTZ KLINIKA


Marcelo Borlle
Kolegiatu zk. 390

Enparan kalea, 8 - 1.
Telef. 943 81 67 36
AZPEITIA

Astelehenetik ostiralera

9:30 - 13:00
15:30 - 19:30



Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



JOXE MARI IPARRAGIRRE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Sta. Barbara bidea, z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943721403 / 943721413
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D



LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 7tik 13ra (biak barne)

Umorea bizio

Panderoari “kariño” berezirik izan ez badio ere, urte askoan plazarik-plzaza ibili da Imanol Arregi *Iturbide*, giroa alaitzen.

  Ainitze Agirrezabala

S

inesteak lanak baditu ere, panderoaren “zeharo kontrakoa” izan da Imanol Arregi *Iturbide* (Loiola, 1935). “Titirri-titirri... ezeren hotsik ez eta, Egañazpi-eta ikusten nituenean, zenbat aldiz esaten ote nuen: ‘joe! gizonak panderoarekin ibili egin behar dik horrela, batetik bestera!’. Gerora konturatu nintzen soinuari asko laguntzen diola eta soinuak behar duela panderoa. Hori egia da. Gatz bat du. Esaera da *ez ezazu esan ur horretatik ez dut edango* eta, begira, harrezkero zenbat tokitan eta plazatan jo dudan”.

Aurrenekoz Urrestillan hartu zuen panderoa *Iturbide*k. “Mutil gaztea nintzen, 16 bat urte, erromerian orduantxe hasia. Sanjoanak edo korputzak izango ziren. Txikurineko ondoan, taberna atarian soinujolea ari zen. *Iturbide*koa nintzela eta, panderoa jotzen derri-gor jakin behar nuela esan zidaten. Bai, nola? Etxean ez zegoen panderorik. Etxean ez nuen ezagutu panderorik. Osabak-eta Sakabi zenaekin bazkariak-eta egiten zituzten base-rrian, baina inork ez zuen panderorik jotzen; soinua jotzen zen. Eman zidaten pandero

hori eta jotzen asmatu egin nuen. Berezko sena-edo izan. Egun hartatik gose pixka bat izan nuen eta, hor jarduten nuen kartoizko kaxa batekin bada ere. Saiatzen nintzen, baita arbitara joan eta igitaiaren muturrean ere. Lehenengo hartan ilusioa egin zidan”.

Panderoa jotzeko, ordea, “bokaziorik ez” zuen; “dantzarako eta festarako, horretarako bai”. Aratzerrekako sanisidrotan erromeriara joan eta hango sakristauak egindako gonbita ondo gogoan du oraindik: “18 bat urte izango nituen. ‘Ogitartekoa eta, gainera, dirua

ere zeozer emango diat panderoa jotzeagatik', bota zidan. Esan nion: 'nahiago diat go-seak dantzan ibiltzea, panderoa jotzen jardutea baino'. Arratsalde hartan abarketak puskatu nituen dantzan". 36 urte arte ez zen hasi ofizial panderoa jotzen. "Orduan izan nuen neure lehen panderoa, Zarautzen eresia".

Bizitasun handiko gizona

Batetik bestera, panderoa jotzen ibiltzeak "mundu izugarria eman" diola aitortzen du *Iturbidek*: "Euskal Herria ondo ezagutu, kanpora bidaiatu eta lagun asko egin ere bai. Auzo batera panderoa jotzera joan eta igoyal esaten zidaten: 'to, *Iturbide*, edan ezak ardoa edo pattarra'. Igarri egiten nien zergatik eskaintzen zidaten, mozkortzeagatik. Esaten nien argitzea ez nuela ardorik edo pattarririk behar. Aurrean nuen jendea gustura, dantzan eta animoz bazebilen, giro eder horrek mozkortzen ninduela. Errezildar batek hala esan zidan: 'nik hirekin gauza baten inbidia diat. Kantuan edo bertsoan hasi behar badiat mozkortu egin behar diat. Hik, berriz, goizgoizetik, etxetik irten orduko, edan beharrik gabe, festarako giroa duk'. Egia da hori".

Plazakoa joan da

Iturbideren esanetan lehengoak eta gaurkoak, "garai desberdinak" dira zeharo. Horren harira, sagardotegitik bueltan behin Charlie Chaplinean izandako ateraldia kontatzen du. "Dozena bat urte izango dira, musika zera hori zegoen. Ilea edukiko nuen, baina burua zurituta nuen ordurako. Imintzio edo mugimenduren bat egingo nuen eta neska gazte batek esan zidan: 'joño! Hori martxa daukazuna!'. 'Zer nahi dun ba!', nik. 'Garai txarrean jaiotakoa zara, oraingo mutilak askoz ere so-soagoak dira lehengoan aldean. Begira, horiek ere basoa hartuta nola dauden kieto'".

Lehen, trikitia "alde guztietan" izaten zela dio: "Denean behar zen. Orduan, soinu-joleak ezin osatu izaten ziren. Gero, berriz, hainbeste soinu-jole on sortu da, baina, orain, behar ez. Ez dago plazarik. Jendeak ez du dantza egiten. Lehenengoz dantzalekua Zarautzen ikusi nuen, orain 35 bat urte. Nik orduan hala



1. Iker bilobarekin. **2.** 1947koa da argazkia: Imanol aitarekin eta hiru osaba pandero jotzailerekin ageri da. Imanol-eta hamar senide dira eta zortzik, behintzat, sena dute panderoa jotzeko. **3.** Orain bi urte, Santa Ageda bezpera karnabaletan tokatu zen eta bertsolariak santa eskera mozorrotuta atera ziren. Argazkian, Arregi Egañarekin.

Umezain ona

|||Hamar senidetan zaharrena izanik, horrexegatik dela "umezain ona" dio Imanol Arregi *Iturbide*-k. Berak hiru seme-alaba ditu eta lau biloba. *Iturbide* baserrian bizi da alaba ere, senarra eta hiru seme-alabekin. "Etxeko bizipoza dira umeak. Biziak dira oso jenioz eta haserretzen direnean ere disfrutatu egiten dut. Ez naiz asaldatzen, pazientzia izugarria dut nik umeak zaintzeko. Alaba eta emaztea umeei musuka aritzen dira beti eta horrela umeak beratzea ez dela ona esaten diet.

Eguerdiro, Iker biloba txikia hartzen du haurtzaindegitik eta arratsaldero kokotetik heldu eta baserri inguruan paseatzen du harekin. "Errietan ez da egin behar, aurpegi txarrik ez eta umore onez ibili behar dugu", horixe erakutsi diet bilobei.

esan nuen: 'Plazako dantzak denak ezkutatu-dituk'. Zoritxarrez asmatu egin dut. Baiba, han argiak zist-zast, musika txinpun-txinpun eta, gero, pon-pin-pon-pin, ipurdia astinduz erdi ilunpean. Pena ematen dit horrek".

Berak baino "zorakeria handiagoak egindakorik inor ez" dela dio. "Nik nola edo hala broma egin behar izaten dut. Aldakatik ope-razterakoan ere horrelaxe ibili naiz, adarjotzen eta txisteak kontatzen; eta, gero, ez da inor nirekin errukitu. 'Hau ondo zebilek umore onarekin' esaten dute, eta, inork kasurik egin ez. Esan nion bati: 'ni hanka moztuta ikusten banaute ere 'hi ederki habil!', botako didate-la". Bizitzeko pozik ez zaio falta, aurpegiko irribarrea eta hizketarako duen bizitasuna dira horren lekuko. "Herrena nago eta Imanolera ailegatzen ez naizenez, Imanoltxo deitzen didate orain etxean. Bastoirik gabe ibiltzeraz, munduko aberatsena ni".*



izarraitz Auzoa, 66 • 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) • Tel: 606 30 63 68 • axkiola@gmail.com

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (EKAINA)

EGUNEZ

1-2-3-4-5-6-11-21-26-27	7-12-13-16-22-29	8-17-23-30
Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 811949	943 815974

GAUEZ

1-2-3-4-5-6	14-15-16-17-18-19-20-28-29-30	7-12-13-25
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 811350	943 811274	943 851966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Ekainaren 30ean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALETZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ INGURUGIRO ETXEA.

Ingurugiro Etxearen ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta 15:00-17:30. Larunbatetan, 10:00-13:30 eta 15:30-17:30. Igandetan, goizez irekiko da, 10:00-13:30.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegia osoa:


www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

1-2-3-4-5-6	14-15-16-17-18-19-20-28-29-30	7-12-13-25	8-9-21-26-27	10-22-23	11-24
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 811350	943 811274	943 851966	943 850660	943 852989	943 851235

AITOR GOROSTOLA

Filipinak (Cagayan Valley, Santa Ana)

“kristoren begiondokoa ematen din beroak”

Urtebeterako kontratua egin zioten eta duela bi hilabete zesta-puntan jokatzera joan zen Filipinetara.  Ainitze Agirrezabala

Erraz hartu al huen Filipinetara joateko erabakia?

Ikasteko eta, gero, Ameriketara saltoa emateko plaza ona hunala esan zidanaren entrenatzaileak. Etxekoek probatzeko esaten zitena-benan, bestela pena horrekin geratuko nindunala. Seguru samar hartu ninan erabakia.

Horra egokitzea asko kostatzen zaizkizu?

Klimarena sekulako aldaketa dun. Ia 40 gradu ditinagu. Kristoren begiondokoa ematen din beroak. Jendeak txuriak izateagatik kristoren beldurrearekin begiratzen zigutene. Askorentzat lehenengo aldia dun mendebaldarrak ikusten dituztela eta, gainera hemengoak baino buru bat edo bi altuagoak gaitun.

Zer moduz zesta-puntako kinietan?

Oraingoz numero txukunak ari naun egiten. Ailegatu gintunan egunean, ordea, lurrikara egon hunan eta aberia mordoska egin zitinan frontoian. Arriskutsua zagon kantxa. Pilotak nora irtengo duen jakitea loteria dun.

Nolakoak dituzte filipinarrak?

Ezagutzen ditinaten filipinarrak pilotariak ditun eta jende on samarra dun. Jatekoa eta lo egiteko leku erosoak baditen, beste denak

eztin ematen asko axola zaienik. Laguntzeko beti prest eta barrez zauden. Apustuak ikaragarri gustatzen zaizkien eta oilarrari dioten mirespena arraroa dun. Bi oilar bota borrokara eta etxeko aurrezki guztia lagatzen ditene. Umeak ere askotan ikusten ditun bi intsektu borrokan jarri eta apustuan.

Hizkuntzarekin zer moduz?

Bertako hizkuntza Tagaloa dun eta ez dun amaren semerik jaio hori ententituko duenik. Pilotarien artean askok ingelesez egiten ditene eta lardaskatuz, ulertzen gaitun elkar.

Eta, jatekoarekin?

Gosaritan, bazkaritan eta afaritan arrosa dinagu. Hasieran harro ibili gintunan bertako jatekoa probatzen, baina gustatzeko modukoa hunan gauza bat tokatzerako ahoan sartzetik ez zagonan lau probatzen genitinan.

Zer dikezu Filipinako azpeitiak ez duena?

Hondartza, eguraldi ona eta euri gutxiago egiten din hemen. Hortik aurrera nik neuk ez zionat ezer bilatzen.

Zer botatzen duzue faltan Azpeititik?

Lokala, etxea, zapatutako giroa, futboleko ekipoa... Oro har, dena botatzen dun faltan.*



1

1. Santa Ana frontoian, pilotariekin.
2. Grostola kinielak jokatzeko zesta-puntan.
3. Beste euskaldunekin, aireportuan.



2



3

Dallas Fortworth (I)

Diote aireportuak itxita daudela, delako sumendiagatik –bota dik amamak igande bazkalondoan, agurtzerakotan, jakinik hurrengo goizean goizago bahoala. Hik baino gehiago zekik!

Ez kezkatu. Beti bada zer edo zer –nik...

Berria irakurri duk etxera orduko, eta zuzen zegok amama. Albistean ageri diren telefonoetara jo duk. Ez alferrik. Inork ez dik hartu. Eta Interneten sartu eta Loiu-Bilboko aireportua jo duk ordenagailuan. “Azken ordua. Aireportua itxita”, eta hau eta hura, eta Islardiako sumendia eta tar-tar-tar. Eta aireportu bertako telefonora jo duk. Eta, harrigarria, lehenengoan hartu ditek. Eta emakumezkoa, esanez halaxe dela, itxita dagoela aireportua, hurrengo goizeko bederatzia arte, gutxienez. Orduan hasiko direla hegazkinei irteera ematen. Nik, Ameriketara noala, goizeko zaziak eta hogeian dudala hegaldia Loiutik Madrilera, handik Dallasera heltzeko, Reno-Nevadara baino lehen. “Hobe duzu Madrilera zeure gisa joan. Ez dizu merezi Bilbotik noiz irtengo den ez dakizun hegazkin baten zain egon, eta Dallasekoa galdu. Ni, zure bezean, Madrilera heltzen saiatuko nintzateke. Loiutik bertatik hainbat autobus dira irtetekoak, baina ezin esan niezazuke nahiko leku izango den guztientzat, ezta zer ordutan ere!. Atarramendua!

Zartatu zuten terminalera

Eta sartu berriz Interneten eta hartu Madrilerako autobusa. Goizeko ordu bietan duk irtekoa Gasteiztik. Eta igande arratsaldea iragaten utzi. Eta alaba oheratzearekin batera andrearen ondoan etzan. “Jarri gero esnagailua!”, andreak. “Lo kuluxka besterik ez. Begiak itxi-ireki bat”. Esnagailua jarri duk hala ere, eta eskerrak eskubiari, loak hartu hau eta. Sasoiz esnatu haiz, dena den. Hartu maleta eta trasteak eta bahoia. Autobusa Espainiara. Bost-sei bat orduko bidea Madrilera, Barajasera. Zartatu zuten terminal hartara.



|||||||miel a. elustondo|||

|||‘Berria’ irakurri duk etxera orduko, eta zuzen zagok amama. Albistean ageri diren telefonoetara jo duk.

Elkarrizketak etenarazi ez zituen lehegailua. Bi hildakoak.

Goizeko zortziak inguru heldu haiz eta ordu bata arte ez duk Dallaseko hegaldia, baina ezagutzen duk American Airlines, baduk amerikarren segurtasun neurri gaixotzerainokoen berri, eta ilaran jarri haiz. Maleta fakturatzea iritsi baino lehen ere, lau kontrol moduko iragan dituk. Check-in-a, lehenengo. Check-in-a baieztatzea, bigarren. Pasaportea eta AEBetara sarrera-agiria, hirugarren. Maletak fakturatzea, azken. Bi ordu joan zaizkik honetan eta hartan. “Halako agiri hau ere behar duzu. Ez baduzu, zoaz han bazterreko ordenagailu hartara eta atera dagokizun klabea. Bestela, baten bati etxean eskatu, berak atera diezazun”. Honek ez du gure berri! Eta han bazterreko ordenagailuan bitan saiatuagatik ere, eta bost euro alferrik bota eta gero, etsi duk, bidaia-agentziara jo duk telefonoz, eta, berehalaxe, letra-zenbaki saltsa bat eman diate, AEBetara sartzeko derrigorra...

(to be continued. jarraitzekotan).✘





horzkari
hortz osasun klinika



Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehengo hortz klinika

KONPONDU ZURRUNGEN ARAZOA

ZURRUNGENTZAT ETA LOALDIKO APNEARENTZAT TRATAMENDUA

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

OrtoApnea, zurrungarik ez egiteko ahoko aparatua

www.grupohorzkar.com



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

Perdillegi, 3
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 81 37 70



Urola
Larri de Hiesabeta

Altamira auzoa, x/g
20720 AZKOITIA
Tel.: 943 85 21 74

IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- ✓ DBH
- ✓ BATXILERGOAK
- ✓ ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
 - Mekanizazioa
 - Arotzerien eta aitzarien fabrikazio industriala
- ✓ GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
 - Administrazioa eta finantzak

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- ✓ ENPRESETAKO LANGILE ETA LANGABETUENTZAT IKASTARO TEKNIKOAK

GAINERA...


Enpresa praktikoak atzerian nahiz bertan

www.urola.org

Heziketa Zikloetako
aurrematrikulazioa
maiatzaren 31tik
ekainaren 11ra arte

ireki begiak etorkizunari !!





Santi Lazkano Kiroalak

uda 2010

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

Ukabi
informatika

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobek
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



JOURNE M400 Mini TV Media Player

- Ukimen pantaila(touch screen) DPF
- TFT_LCD 4.3" (16:9) pantaila
- Telebista digitala DVB-T standart-arekin
- Mini marku digital programagarria
- MP3,DivX,MPEG4 erreproduzigailua

99 euro
b.e.z. barne